



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acuerdo de Pleno

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren erabakia

AYT/PLE/2/2021

ORG15I06X

Código de validación/Balidazio kodea

522J624L1B503Q4K075R



Honako hau egin da aditzera emateko Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2021eko martxoaren 10ean egindako Ezohikoa bileran, korporazio-kideen legezko kopuruaren aho batez, besteak beste, jarraian idatzitako erabakia hartu zuela:

Herritarrek euskara ikasteko erraztasunak izan ditzaten, Ermuko Udalak tokiko biztanleei zuzendutako beka-deialdi bat ireki ohi du urtero.

Deialdi hori arautzen duen oinarri espezifikoek, denboraren poderioz ere zenbat aldaketa izan dute, ikasleen tipologia eta beharren aldaketara egokituz eta urteen joan etorrian beste erakunde publiko batzuk abian jarri dituzten bestelako laguntzekin uztartuz.

Hortaz, gaur egun indarrean dugun Euskara ikasteagatiko diru-laguntzetako oinarriak 2016an behin betiko izaeraz onartu eta argitaratu ziren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO. 175. zk. 2016, irailak 13. Asteartea)

Harrez gero, urte hauetan izan dugun tramitazioak berak azalarazi dituen hobekuntza premiak, eta gure herritarrei euskara ikasteak eragin diezaiekeen kostu ekonomikoa arindu eta erraztasunak eman nahian, hainbat hobekuntza eta argibide egitera eramaten gaitu:

Euskara ikasteagatik ematen diren laguntzak edo diru-laguntzak arautzen

Se extiende para hacer constar que, por el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria de fecha 10 de marzo de 2021, por unanimidad del número legal de miembros de la Corporación, entre otros, se adoptó el acuerdo que a continuación se transcribe:

Con el fin de garantizar las facilidades para el aprendizaje del euskera por parte de la ciudadanía, el Ayuntamiento de Ermua suele abrir anualmente una convocatoria de becas dirigidas a la población local.

Las bases específicas reguladoras de esta convocatoria han sufrido con el paso del tiempo cambios que han ido adaptándose a los variaciones en la tipología y necesidades del alumnado y que se han ido combinando con otras ayudas que otras instituciones públicas han puesto en marcha a lo largo de los años.

Por lo tanto, en 2016 se aprobaron y publicaron definitivamente en el Boletín Oficial de Bizkaia (BOB) las bases reguladoras de las subvenciones por el aprendizaje del euskera, actualmente en vigor. (BOB. N° 175. 2016, 13 de septiembre. Martes)

Desde entonces, la propia tramitación de estos años ha puesto de manifiesto unas necesidades de mejora que, en aras a paliar y facilitar a nuestra ciudadanía el coste económico que supone el aprendizaje del euskera, nos lleva a realizar una serie de mejoras y aclaraciones:

Propuesta de modificación de las bases específicas para la concesión de

dituzten oinarri espezifikoetan ondoko aldaketak proposatzen dira:

BALDINTZEI DAGOKIENEZ

5.1. Baldintzak eta dokumentazio orokorra

Hau jasotzen duen lekuan:

- Aurretik diruz lagundutako azpi-maila ez izatea. Salbuespena: B2 maila, azpi-maila bat bi aldiz lagungarria izan baitaiteke.

Proposatzen da:

- Aurreko bost urteetan diruz lagundutako azpi-maila ez izatea, B2 eta C1 mailak izan ezik, horietan azpi-maila bakar bati bi aldiz eman dakioketako diru-laguntza. Baldintza hori ez da aplikatuko udako ikastaroetan edo barnetegietan.

ASISTENTZIARI DAGOKIONEZ

5.2. Baldintzak eta dokumentazio espezifikoa.

5.2.1. Ohiko ikaslea.

Hau jasotzen duen lekuan:

- Eskola-orduen %80era joan izana eta Ikastaroaren azpi-maila gaititu edo aprobetxatu izana. Horretarako «Ikaslearen ibilbide-oso» izeneko dokumentua aurkeztuko da, Euskaltegian zein HABEko Weben eskura daitekeena

ayudas o subvenciones por aprendizaje de euskera:

RESPECTO A LOS REQUISITOS

5.1. Requisitos y documentación general

Donde indica:

- Que no se trate de subnivel subvencionado con anterioridad, con excepción de B2 en el cual un nivel puede ser subvencionado en dos ocasiones

Se propone:

- Que no se trate de subnivel subvencionado en los cinco años anteriores, con excepción de B2 y el C1 en el cual un único subnivel puede ser subvencionado en dos ocasiones. Este requisito no se aplicará en los cursos de verano o barnetegis.

RESPECTO A LA ASISTENCIA

5.2. Requisitos y documentación específicos.

5.2.1. Alumno/a ordinario

Donde indica:

- Haber asistido al 80% de las horas lectivas del curso y haber superado el subnivel correspondiente o aprovechado el curso que se trate, para lo cual habrá que adjuntar la «trayectoria total del/ de la alumno/a» que podrá recogerse en el Euskaltegi o descargarse en la Web de HABE



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acuerdo de Pleno

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren erabakia

AYT/PLE/2/2021

ORG15I06X

Código de validación/Balidazio kodea

522J624L1B503Q4K075R



Proposatzen da:

- Ikastaroko eskola-orduen % 80ra joan izana, medikuaren aholkuaren ondorioz eskoletara joan ez diren orduak izan ezik; horretarako, medikuaren txostena edo laneko baja-agiria aurkeztu beharko da.
- Ikastaroaren azpi-maila gainditu edo aprobatxatu izana. Horretarako «Ikaslearen ibilbide-oso» izeneko dokumentua aurkeztuko da, Euskaltegian zein HABEko Webean eskura daitekeena

Hau jasotzen duen lekuan:

- Hurrengo ikasturtean euskararen ikasketa prozesuan aurrera jarraitzea, hala ez balitz, gehienez ere bi ikastaro igaro arte, beka eskatzeko eskubidea gordeko da. Epe horretan ikasleak ez badu matrikularik egiten, beka jasotzeko ordura arte eduki duen eskubidea galduko du.

Proposatzen da:

- Hurrengo ikasturtean euskararen ikasketa prozesuan aurrera jarraitzea, B2 maila egiaztatu arte. Hala ez balitz, gehienez ere bi ikastaro igaro arte, beka eskatzeko eskubidea gordeko da. Epe horretan ikasleak ez badu matrikularik egiten, beka jasotzeko ordura arte eduki duen eskubidea galduko du.

Se propone:

- Haber asistido al 80% de las horas lectivas del curso, con excepción de las horas de inasistencia por consejo médico, que deberán ser justificadas mediante informe de salud o baja laboral.
- Haber superado el subnivel correspondiente o aprovechado el curso que se trate, para lo cual habrá que adjuntar la «trayectoria total del/ de la alumno/a» que podrá recogerse en el Euskaltegi o descargarse en la Web de HABE

Donde indica:

- Seguir adelante en el proceso de aprendizaje en el siguiente curso lectivo. En caso contrario, tendrá derecho hasta un máximo de dos cursos lectivos de solicitar la bonificación correspondiente. Transcurrido este tiempo sin que el/la alumno/a formalice su matrícula se perderá dicho derecho.

Se propone:

- Seguir adelante en el proceso de aprendizaje en el siguiente curso lectivo hasta la acreditación del B2. En caso contrario, tendrá derecho hasta un máximo de dos cursos lectivos de solicitar la bonificación correspondiente. Transcurrido este tiempo sin que el/la alumno/a formalice su matrícula se perderá dicho derecho.

BOZKETAREN EMAITZA	RESULTADO DE LA VOTACIÓN
<i>PSE-EE/PSOE: Aldekoak 6</i>	PSE-EE/PSOE: A favor 6
<i>EH Bildu: Aldekoak 2</i>	EH Bildu: A favor 2
<i>EAJ/PNV: Aldekoak 4</i>	EAJ/PNV: A favor 4
<i>Elkarrekin Ermua: Aldekoak 2</i>	Elkarrekin Ermua: A favor 2
<i>PP: Aldekoak 1</i>	PP: A favor 1